

Antzezlanak argitaratzeko deialdiko oinarriak

Autoreen Espres Antzerkiaren 2017ko 2. deialdia

SGAE Fundazioak argitalpen-lerro berria ireki du, Autoreen Espres Antzerkia Bilduma, alegia, estreinatu gabe dauden antzezlanak sustatzeko eta zabaltzeko. Bilduma ez da salgai egongo, 250 ale baino ez dira argitaratuko, estreinaldian bertan emango zaizkio autoreari eta profesionalen, kritikarien, akademikoen... artean ere banatuko dira. Deialdi honetan, 5 antzezlan hautatuko dira gehienez ere.

Deialdia oinarri hauen arabera arautuko da.

Lehenengoa: eskatzaileak

SGAE Fundazioak SGAEko kideak diren autore biziak aurkeztutako argitalpen-eskabideak aztertuko ditu.

Bigarrena: antzezlanen betekizunak

Deialdi honetara aurkeztutako antzezlanek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. SGAE en erregistratuta egon beharko dira.
2. Antzezlanak erabat estreinatu beharko dira 2017ko iraila 1etik 2018ko martxoaren 31ra.
3. Gutxienez antzezlanak aurreikusita dituen 10 emanaldi egiaztatu beharko dira.
4. Antzezlanak estatuko hizkuntzetako batean idatzita egon beharko dira: gaztelaniaz, katalanez, euskaraz, galizieraz edo valentzieraz. Bestela, autoreak aukeratutako beste edozein hizkuntzatan ere idatzita egon ahal izango dira. Deialdira aurkeztutako antzezlanak idazteko erabilitako hizkuntza ez da ezinbestean estreinaldikoa izan beharko. Dena dela, itzulpena ez da inolaz ere SGAE Fundazioaren konturakoa izango.
5. Lanaren argitalpena editore batekin hitzemandako edo kontratatuta ez egotea, eta, egongo balitz, argitalpen hori eta SGAE fundazioarena bateragarriak izatea, egileak horretarako beharrezkoak diren eskubideen titulartasuna duelako.

Hirugarrena: hautatutako lanen kopurua

Deialdi honen bitartez, gehienez ere 5 antzezlan hautatuko dira, Autoreen Espres Antzerkia Bilduman argitaratzeko.

Laugarrena: argitalpenaren kontratua

Hautatutako antzezlanen autoreek behar besteko konpromisoa hartuko dute, SGAE Fundazioarekin kasuan kasuko argitalpen-kontratua argitaratzaileak zehaztutako baldintzetan sinatu ahal izateko.

Bosgarrena: argitalpenaren ezaugarriak

1. Hautatutako antzezlanak SGAE Fundazioko Autoreen Espres Antzerkia Bilduman argitaratuko dira.

2. Salgai egongo ez den argitalpena izango da. Beraz, kasuan kasuko autoreek eta SGAE Fundazioak berak ezin izango dute inolako alerik saldu.
3. Tirada: antzezlan bakoitzaren 250 ale inprimatuko dira. Eurretatik, 150 ale bidaliko zaizkio autoreari, eta kostuak estalita egongo dira. Gainerako 100 aleak SGAE Fundazioak berak banatuko ditu sektoreko profesionalen artean (ekoizleak, akademikoak, argitaletxeak, konpainiak...). Horrez gain, zenbait ale ere erabiliko dira SGAE Fundazioko zabalkunde, sustapen eta artxiborako.
4. Hautatutako autoreek berariaz eskatuz gero, hirugarren klausulako 3. puntuan aipatutakoa baino handiagoa izan ahalko da tirada. Dena dela, tirada gehigarri horren kostuak ez lirateke deialdi honetan estaliko. Beraz, eskaera egiten duen autoreak berak ordaindu beharko lituzke.
5. Lanak deialdian aurkeztuak izan diren hizkuntzan publikatuak izango dira, edo, autoreak hala eskatuta, gazteleran itzulita. Horretarako autoreak berak dagokion itzulpena erreztu beharra dio SGAE Fundazioari.
6. Autoreen Espres Antzerkia Bilduman argitaratzeko asmoz deialdi honetan hautatutako lanak argitaratzean, ez da inolako eskusibotasun-konpromisorik sortuko. Hori dela eta, beste edozein argitaletxe ere argitaratu ahal izango ditu.
7. SGAE Fundazioak hautatutako antzezlanak Autoreen Antzerkia Bilduman argitaratu ahal izango ditu ala ez. Halakoetan, argitaratzeko kontratu berria egingo zaie antzezlanei.
8. Argitalpen fisikoarekin batera, SGAE Fundazioak deialdi honetan hautatutako antzezlanen argitalpena prestatuko du formatu digitalean, eta jendeak SGAE Fundazioaren web orrian izango ditu eskuragarri.
9. Hautatutako antzezlanaren autoreak salgai jarri daitekeen argitalpenean aipatu beharko du SGAE Fundazioa argitaratzailea izan dela eta SGAEren lankidetzara eduki duela.

Seigarrena: agiriak

Honako agiri hauek erantsi beharko dira eskabideetan:

1. Modu telematikoan behar bezala betetzeko eskabide-orria.
2. Eskatzailearen nortasun-agiriaren.
3. Eskatzailearen CVA.
4. Word formatuan edo antzekoan dagoen antzezlan osoa, betiere editatzeko moduko formatuan badago.
5. Erabateko estreinaldiaren egunari eta antzezpenetarako konpromisoari buruzko egiaztagiriak.
6. Horrela bada, laguntza hauetara aurkeztutako lanaren eskatzaileak dagoeneko editorearekin edo editoreekin sinatuta dituen argitalpen-kontratuak.

Zazpigarrena: eskabideak aurkezteko eta ebazteko prozedura

1. Ebaluazio-batzorde bat arduratuko da oinarri hauetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten eskaerak aztertzeaz eta ebaluatzeaz.
2. Batzordeak antzezlanak hautatu eta, idatziz, ebazpenaren berri emango die interesdun guztiei.
3. Batzordearen ebazpena itzulezina izango da.

4. Batzordearen ebazpena aldekoa bada, aurkeztutako agiriak alderdiek sinatuko duten hitzarmeneko atal banaezina izango dira.
5. Batzordearen ebazpena aurkakoa bada, ordea, aurkeztutako agiriak SGAE Fundazioko artxiboetatik ezabatuko dira hautatutakoei ebazpenaren berri ematen zaienetik hasi eta hamabost eguneko epean.

Zortzigarrena: eskabideen aurkezpena eta epea

1. Eskabide-orria SGAE Fundazioaren web orrian egongo da eskuragarri: www.fundacionsgae.org. Eskabide-orriaren formatu elektronikoa erabili beharko da, eta eremu guztiak bete beharko dira. SGAE Fundazioak eskabide guztiak jaso izanaren egiaztagiria bidaliko du. Oinarri hauetan eskatutako agiriak aurkezten ez dituzten eskabideek akatsak zuzentzeko hamabost eguneko gehieneko epea izango dute kasuan kasuko jakinarazpena jasotzen dutenetik.
2. 2017ko deialdirako eskaerak aurkezteko epea urriaren 17an (asteartea) hasiko da, eta zabalik egongo da azaroaren 23ko (osteguna) 24:00ak arte. Ez da epe horretatik kanpo jasotako eskabiderik onartuko.

Bederatzigarrena: lankidetzaren gauzapeña

SGAE Fundazioak eta onartutako proiektua duen eskatzaileak lankidetzaren hitzarmen berezia sinatuko dute, eta, bertan, ezinbestean agertu beharko dira agiri honetan zehaztutako oinarriak.

Hamargarrena: norberaren datuak isilpean gorde eta babestu beharra

Deialdi honetako prozesuan alderdiek ematen dituzten datu guztiak isilpekoak izango direnez, ezin izango zaizkie hirugarrenei jakinarazi, eta zehaztutako helburuetarako baino ez dira erabiliko, indarreko legerian adierazitako salbuespenetan izan ezik.

Eskatzaileak borondatez emandako datu pertsonalak SGAE Fundazioaren ardurapeko fitxategi batean gordeko dira, eta hori Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren (DBEB) Datuak Babesteko Erregistro Nagusiari jakinaraziko zaio. Norberaren Datuak Babesteko Oinarriko Eskubidearen titularrak datuok eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak izango ditu. Datu horiek erabili nahi izanez gero, honako helbide honetara bidali beharko du idazkia: SGAE Fundazioa, zuzendari nagusiaren izenean, Bárbara de Braganza kalea 7, 28004 Madril. SGAE Fundazioak jakintzat emango du interesdunak emandako datuak egiazkoak direla eta gaur egungo egoeraren arabera direla. Interesdunak datu horien aldaketaren berri eman beharko du halakorik gertatzen denean.

Hamaikagarrena: arau orokorrak

1. Eskatzaileak eskabidea aurkezten duenean, agiri honetan zehaztutako oinarriak zein baldintzak onartuko ditu isilbidez. Era berean, behar besteko baimena ere emango dio SGAE Fundazioari, haren memorietan eta gainerako argitalpenetan hautatutako antzezlanen argitalpenari buruzko informazioa zabaldu dezan.
2. Eskatzaileak ez dio SGAE Fundazioari inolako erantzukizunik egotziko, antzezlanaren autoretzari eta antzezpenari dagokienez indarreko legeria edonola urratzen duenean.

3. Kontratu honen arabera, SGAE Fundazioak ez du oinarri hauetan adierazitakoa ez beste erantzukizun zuzenik eta subsidiariorik bere gain hartuko, hautatutako antzezlanari dagokionez.
4. Agiri honetan ezarri beharreko legeria Espainiakoa izango da, eta alderdiek berariaz men egingo diote Madrilgo hiriburuko auzitegietako jurisdikzioari. Beraz, dagokien foruari egingo diote uko.

Informazio gehiago: informacion@fundacionsgae.org